

ehbildu



EAE-KO ESTATUS POLITIKO BERRIRAKO PROPOSAMENA

**ERABAKITZEKO ESKUBIDEA OINARRI DUEN
EGITURA INSTITUZIONAL BURUJABEA ERAIKIZ**

EAE-KO ESTATUS POLITIKO BERRIRAKO PROPOSAMENA

**ERABAKITZEKO ESKUBIDEA OINARRI DUEN EGITURA
INSTITUZIONAL BURUJABEA ERAIKIZ**

0.- HITZAURREA

Burujabetza nahia ibilbide luzeko sentimendua da Euskal Herrian, historian zehar molde eta aldarrikapen ezberdinak hartzen joan dena. Elizate, kontzeju, batzar nagusi, gorteak...euskaldunok azken mendeetan erakunde eta egituratze forma ezberdin asko izan ditugu gure burua gobernatzeko asmoz eratutako tresna gisa.

Burujabetza, euskal nazioaren izaerari ez ezik, euskal lurraldeetan bizi diren herritarren ongizatea bermatzeko eta garatzeko borondateari lotuta ere badago. Argi adierazi behar da, historian zehar euskal lurraldeetako biztanleek osatutako komunitatea behin eta berriz bere burua politikoki eratzen eta gobernatzen saiatu dela, euskal herritarren bizi baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko asmoz.

Burujabetza erdiesteko ibilbide horretan, euskal herritarrek, sarri askotan komunitate desberdinetan eratu, egitasmo ugari sortu ditugu, betiere frantziar eta espainiar Estatuaren partetik nagusiki mespretxua erantzun gisa jasoz. Euskal Herriaren historian izandako gatazka nagusien muinean, burujabe izan eta inoren mende ez bizitzeko nahia dago; aldarrikapen horren errespetua eskatzen zuten eta berau ukatu nahi duenen arteko talka hain zuzen ere.

Herri bezala gure etorkizuna bermatzeko, globalizazioak begien bistan jartzen dituen erronka ekonomiko, finantziario, ekologiko edota sozialei aurre egiteko eta bide batez gure herriaren ongizatean sakontzeko burujabetza maila gorena ezinbestekoa dugu. Nazioarteko eremuan, XXI. mendean eta bizi dugun egoera geopolitiko konplexua kontutan izanda, Estatu propio bat izateak soilik bermatzen du aukera hori. Eta Estatu izaera horrek soilik bermatzen digu demokraziaren berreskurapena, non euskal herritarrek eta soilik beraiek erabakiko duten zein izango den bere antolaketa politiko, instituzional edota ekonomikoa. Dena erabakitze-ko, Estatu izan behar gara. Jakin badakigu Estatu izanda ere globalizazioak hainbat erabakimen baldintzatuak izatera behartzen gaituela. Horren jakitun izanik ere, zera adierazten dugu: Estatu izanda ezingo ditugu erabaki guztiak hartu, baina aldi berean diogu, Estatu ez ba gara ez dugu gure herriari buruzko erabaki estrukturalik hartzeko ahalmenik izango.

Estatu independente bat sortzeko aldarrikapenak, baditu dagoeneko hiru mende Euskal Herrian, Aita Larra mendik lehen aldiz idatzita utzi zuenetik. Independentismoa politikoki Sabino Aranarekin gorpuztuko bada ere, Dominique Garat, Agosti Xaho edo Arturo Kanpionen gisako pertsonalitateen ekarpenak ere garrantzitsuak izan ziren gorpuzte horretan, eta beranduago, bai mundu politiko, sindikal eta kulturaletik batutako hausnarketa eta ideia berri asko ere.

Azken mende erdian, Euskal Herriaren Hegoaldean, espainiar administraziopean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bere baitan hartuz, Euskal Autonomi Erkidegoa eratu zen, Gernikako Estatututik eratorria eta Espainiako Lege Organiko forma hartuaz. Ondoren, Nafarroako Foru Komunitatea gorpuztu zen Foruen Hobekuntzaren legearen bidez; Euskal Herriaren Iparraldean berriz, frantziar administraziopean, Euskal Hirigune Elkargoa sortu berri da duela hilabete gutxi. Zatiketa administratibo eta politiko hauen gainetik ere, Euskal Herriaren nazio nortasunak eta autodeterminatzeko nahiak indarrean dirau.

Behin baino gehiagotan esan izan da autodeterminazio eskubidea herri kolonialetik bakarrik aplikatu ahal zaiela. Irakurketa juridiko honekin giza esku - bideen errekonozimenduei buruzko nazioarteko dokumentuetan jasotako eskubide kolektibo batek, jada nazioartean aplikaziorik ez lukeela esan nahiko litzateke. Arrazoia sinplea da. Jada ez dago inperio kolonialik. Hala ere autodeterminazio eskubidea Estatuei onartua izan zaie hainbat testu konstituzionaletan; Alemaniakoak adibidez, autodeterminazio librea jasotzen du bere existentziaren oinarri gisa.

Autodeterminazio eskubidearekin batera, Erabakitze Eskubidea sortu da, Canadako Epaitegi Gorenaren sententzia baten ondorioz. Epaitegi honentzat, Konstituzioek ez dute printzipio bakar bat, batasunarena, baizik eta bat baino gehiago, eta denak osotasunean interpretatu behar dira. Honela, legalitate printzipioa, oinarritzko eskubideak, printzipio demokratikoa edo federalismoa ere osotasunean interpretatu behar dira. Hau da, balioen aniztasuna, Konstituzioaren interpretazioari aplikaturik. Norabide honetan, Estaturik gabeko nazio batek bere estatusa aldatzea erabakiko balu, nazioa barneratzen den Estatu, negoziatzera behartuta dago. Negozialetaren emaitza ezin daiteke aurreikusitako, baina zuzenbideak egoerari irtenbide juridiko bat eman behar dio.

Eskozia-Britainia Handiko kasua izan daiteke eredugarri. Bertan, Britainiarrek ez zuten zalantzan jarri Eskoziarrek beraien etorkizuna erabakitze eskubidea. Britainia Handiak eta Eskoziak aipatutako eskubidea gauzatzeko prozedura negoziatu zuten, eskubideak hasieratik onartuz. Guzti hori, Eskozia eta Britainia Handiaren Bategite Aktak, betirako batasuna aldarrikatzen duen arren.

Hauxe da Estatu espainiarrak etengabe ukatzen duen errealitate. Euskal Herriari zein, azken hauetan ikusten ari garen bezala Kataluniako herriari ere, baliabide guztiekin ukatu izan zaio, aitortza eta herri gisa dagozkigun eskubideak.

Maila horretako arazoak ezin dira Estatuko Instituzioek aukeratutako Auzitegi baten bidez konpondu. Auzitegi Konstituzionalaren zilegitasuna bere funtzionamenduaren arabera neurtzen da. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Zuzenbideari bizitza politikoa bideratzeko tresna gisa ematen dion balio eskasa agerian geratu da urte luzeetan. Hainbat aldiz utzi du agerian duela zazpi urte, 31/2010 Sententzia publiko egin zuetik. Estatu espainiarrak ez du ordea in- oiz, berdintasunezko harreman parekiderik onartu eta hori gatazka politikoaren iturri izan da beti.

1.-EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA: ERABAKI-SUBJEKTU BILAKATUTAKO KOMUNITATE POLITIKOA. GERNIKAKO ESTATUTUAREN BILAKAERA

1979an Gernikako Estatutua izan zen mugarri, diktaduraren hamarkada ilunak jasan eta gero. Mugarri horretan, euskal gizartearen sentsibilitate politikoek modu ezberdinean baloratu zuten autonomia estatutu hark irekitzen zituen aukerak. Batzuek horren alde egin zuten, pentsatuz gure herriaren ongizatean, burujabetzan, aurrera egiteko aukerak eskaintzen zituela. Beste batzuek berriz, frankismo ondoko erreformatik sortutako konstituzioaren garapen erregionalista besterik ez zela, independentismoari ateak erabat ixten zizkiona. Gernikako Estatutuak egin zuen bere ibilbidea eta gaur egun, mugarri haren aurrean iritzi desberdinak zituzten sentsibilitate politikoetako askok bat egiten dugu bide hori erabat agortuta dagoela baloratzerakoan.

Hasiera batean, Autonomiaren bideak aldebikotasunaren irudikapena egiteko aukera eskaini zion euskal gizarteari. Hala ere, Gernikako Estatutuaren garapenak erakutsi du Estatuaren erabat menpeko izan dela, eta praktikan aldebikotasunaren irudikapen hori desegiten joan da, Espainiar Estatuaren izaera zentralista agerian utziz. Bi elementu nagusi izan dira azken 38 urte hauetan baieztapen horri indarra eman diotenak.

- Alde batetik, Estatutuaren zati handi bat bete gabe dago, Estatu espainiarraren aldetik horretarako borondate politikorik izan ez delako.
- Bestetik, Espainiar Estatuko botere desberdinetatik, bereziki exekutibo, judizial eta Auzitegi Konstituzionalatik, egin diren interpretazio politiko zein juridikoak, murriztaileak eta mugatzaileak izan dira.

Honela labur ditzakegu 1978ko Konstituzioa eta 1979ko Gernikako Autonomia Estatutua onartu ondoko lehen urteetatik egungo egoerara ekarri gaituzten arrazoi nagusiak:

- Estatuaren aldetik, Euskal nazio izaera historikoa eta haren erabakitzeko ahalmenaren onarpenik eza.
- Estatuaren aldetik, berdintasunean eta adostasunean oinarritutako aldebiko harreman eskema ukatzea.
- Gernikako Estatutuak dituen eskumen guztien transferentzia eta garapenari etengabe jarri zaizkion trabak.
- Gaur eguneko eskaera politiko eta sozialen aurrean egokipen eta garapen bide berrietarako aukerak itxita egotea.
- Eskumen urraketen aurrean erreakzionatzeko gauza izango litzatekeen benetako berme-sistemarik ez izatea.

1978 errejimenaren gainbehera aurrean dugun honetan, gure nazio nortasunaren aitortza eta etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea gauzatzeko aukera berri baten aurrean egon gaitezke. Argi dugu ordea aitortza hori ez dela etorriko, ez gaur egungo markoaren baitan emandako urratsetatik, ez eta 78 ko Konstituzioaren azaleko aldaketetatik ere.

Benetako aldaketa izatekotan, Estaturik gabeko nazioen erabakitzeko eskubidearen eskutik etorriko da hain zuzen ere. Katalunian burutzen ari den prozesuak, leiho berri bat ireki du. Behingoz Estatu espainiarrarekin zein munduko beste herri, Estatu eta entitateekin parekidetasunean harremanak izateko aukerak emango diguna. Bide hori urratzeko, EAEk Estatu espainiarraren administraziopean dauden beste nazioetako indar eta mugimendu soberanistekin elkarlana bultzatu behar du, Estatu Espainiarraren demokratizazioa lortuko ez bada ere, nazio horien burujabetza helburu.

Estatu Espainiarraren jarrera ikusita, gure bide propioa egiteak, gure erabakiak hartu eta gauzatzeak soilik bermatu ditzake EAEko herritarren eskubideak. EH Bildutik, gaurko egitura eta erakundeak burujabetzaren norabidean jartzea ezinbestekoa ikusten dugu. EAEtik abiatuz, Estatu bat sortzea funtsezkoa dugu, Euskal Errepublika Konfederala ortzimugan izanik.

2.- EAEko ESTATUS POLITIKO BERRIRAKO OINARRIAK eta PRINTZIOAK

Eraiki nahi dugun estatus politiko berriak, honako oinarriak izango ditu:

- **Euskal Herriaren, NAZIO AITORTZA.** Euskal Herria nazioa da eta munduko gainerako nazio guztiak bezala, bere egitura eta etorkizuna antolatzeko eskubide osoa du. EAE, Euskal nazioak dituen, hiru eremu instituzional eta administratiboetako bat da.
- **AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA.** Euskal Herriak, nazio den heinean, bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea du. Nazio horren partaide izanik, EAE (Nafarroa eta Ipar Euskal Herria bezala), bere burua antolatu eta etorkizuna erabakitzeko eskubidea duen subjektu politikoa da. EAEk bere estatus politikoari buruzko erabakiak herritarren borondatearen esku jartzeko mekanismo eta prozedura zehatza izango du. Herritarren borondatea molde desberdinetara adierazten da. Ezin da kanpotik inposatu berau adierazteko forma ez eta bere estatus-ari buruzko negoziaketak garatzeko eta gauzatze-ko baldintzarik exijitu ere; “Ley de Claridad” delakoaren moduko kanpo injerentziak ez dira onargarri.
- **HERRITAR BURUJABEAK. PRINTZIO DEMOKRATIKOA.** Herritarren borondatea izango da muga bakarra, horixe delako XXI. mendeko herrialde baten aniztasuna errespetatzeko modu zuzen eta eraginkorrena. Herritarrek erabakiko dute zein harreman nahi duten gainerako Euskal eremu instituzional eta administratiboekin, Espainiako estatuarekin, Europako Instituzioekin eta baita atzerriko gainerako eragileekin ere. Harreman horiek denak errespetuan eta berdintasunean oinarrituak izango dira.
- **AUTOERAKETA ETA AUTOANTOLAKETA.** Autoeraketa herri batek herritarren aginduz bere burua mugarik gabe egituratu eta osatzeko duen eskubidea da. Euskal Autonomia Erkidegoa –Euskal Herriaren zatia izanda– bere buruari emandako ahalmenean oinarrituta, komunitate politiko gisa eratu zen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek beraien buruari komunitate politiko gisa eratzeko ahalmena eman zioten. Prozesu eratzaile horretan aurrera urratsak egiten jarraitzea proposatzen dugun bezala, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian ere autoeraketa prozesuetan sakontzen jarraitzea proposatzen dugu, bakoitza bere abiapuntutik, bere fase eta abiadurekin, prozedura eta era desberdinetan eta beti ere bertako herritarren adostasunez.

Orain, mundu garaikideak ezarritako erronka berriei – bereziki askatasunean eta justizia sozialean oinarrituta gizarte gisa hazteko egitasmoari - aurre egiteko eta Estatu Espainolak ezarritako ukazioaren aurrean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal herritarrok ditugun erakundeak eskumenez bete behar ditugu, burujabetza-egitura instituzional bilakatu arte. Estatus berriaren baitan, EAE-k gainerako subjektuekin eta entitateekin harremanetarako gaitasuna izango du, Estatuaren jarduerak baldintzarik sortu gabe. Harreman hauek era guztietako Estatu, Entitate, Errejiio eta gainerakoekin garatu ahalko dira, baita nazioarte mailakoak ere. Norabide horretan, gaur egun dauzkagun erakunde autonomikoak egituratu behar ditugu, euskal herritar gehiengo zabalak hala erabakiko duenean Estatu propioaren oinarri instituzionala izan daitezen.

- **LEGALITATE PRINTZIPIOA.** Muga bakarria herritarren borondatea izanik, gaur egungo erakundeetatik abiatuta, Euskal instituzio burujabeak sortzeko bideari ekingo zaio eta haiek ekoiztutako legeak arautuko du egin beharreko bidea eta etorkizuneko estatusa. Euskal Legalitateak arautuko duen bide horretan, indarrean den Estatuko legalitatearekin talka egiten badu gure instituzioen eta araudiaren borondatea lehenetsiko da. Legebiltzarrak hartutako erabakiak baliogabetzeko edo eta espainiar legediatik eratorritako erabakiak inposatzeko ahalmenik ez zaio aitortuko inolako espainiar organo politiko edo judiziali.

Nazioartean eman izan diren antzeko prozesuen berezitasun bat da, onartzea, Komunitate politiko gisa eratu nahi den eremuak dituen Arauek erregulatuko dutela prozesua. Eratu nahi den Komunitateari ezin zaio bere existentzia onartzeko baldintzarik jarri. Eratzeko moldeak herri baten autodefinizioaren parte dira, prozedura, gehiengo eta modu desberdinetan garatu daitezkeenak. Kanpotik adierazpen forma horri legitimitate handiagoa edo txiki-agoa eman ahal zaio, baina ezin da inola ere molde zehatz bat inposatu.

- **NAZIOARTEKO PRINTZIPIO ETA EBAZPENAK GEURE EGITEA.** Herri gisa gure etorkizun politikoa libre eta demokratikoki erabakitzeko, autoafirmazioa lehen urratsa dela jakitun, gure bide eratzaillea garatzerakoan, herrien autodeterminazio eskubidearen inguruan Nazioarte mailako Erakunde nagusietan jasotako printzipioak kontutan hartu eta jarraitu behar ditugu. Honako hauek dira Nazioarteko Komunitatearen aitortzaren bila ipar-orratza bilakatu behar zaizkigun nazioarteko itunak:

1. Nazio Batuen Gutuna. Nazio Batuen Erakundea sortzeko izenpetu zen ituna.
2. Nazio Batuetako eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna.
3. Europako kooperazio, eta segurtasun konferentziaren bukaera akta.
4. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna.
5. NBEren ebazpenak: 1514 (XV), 1541 (XV) 2625 (XXV) "Herri kolonizatu eta okupatuak" begirakoak.

- **ESTATU-EGITURAK SORTU, INDARTU ETA EDUKIZ BETE.** Gaur egun esku artean ditugun tresnak politiko eta instituzionalak burujabetza osoaren norabidean edukiz bete behar ditugu. Estatu egiturak osatu eta indartzea ezinbestekoa dugu. Euskal Herriak, subjektu politiko burujabe gisa eratzeko ahalmena libreki gauzatzeko aukera bermatua izan behar du. Askatasun hau, pertsonei, herritarrei dagokie, baina era berean baita hauek ordezkatzeko dituzten instituzioei ere. Boteren banaketaren egitura oinarri izango duen markoan ohiko hiru botereak antolatuko dira:

- **AGINTE LEGEGILEA** Parlamentu autonomikoa izatetik Legebiltzar burujabe izatera pasatzeko pausua emango du. Gaur egungo legeditik abiatuz, Estatua eraikitzeko beharrezkoak izango diren legedia eta arautegiak onartzen eta garatzen joan behar du Legebiltzarrak. Onartu eta

garatu beharreko arautegiak, orain artean Estatu Espainiarraren eskumenak ziren esparruak ere, (hala nola, Gizarte Segurantzza, Lan Araudia, Zigor Kodea...) bere gain hartuko ditu.

EAEko eredu legegileari jarraituz orain arteko kamera bakarraren ereduarekin segitu daiteke. Hala ere, kontuan hartu beharko da etorkizunean legebiltzar hori eta Euskal Herriko beste bi erabaki esparruen artean eremu komun bat sortzeko aukera egon daitekeela. Beti ere, EAEko, Nafarroa Garaiko eta Iparraldeko herritarren borondatearen arabera.

Era berean, Legebiltzarra, herritarren borondatearen adierazpen nagusi gisa, bortxaezina izango da. Bortxaezintasun hori Legebiltzarraren egoitza, funtzio, eta herritarren borondatea adierazten duten erabaki politikoei dagokie. Beste inongo boterek ezingo du baldintzatu eta mugatu Legebiltzarraren jarduera. Legebiltzarraren bortxaezintasunak bere autoantolaketa ahalmena baieztatzen du. Era berean, Legebiltzarraren bortxaezintasunak legebiltzarkideen bortxaezintasuna eta inmunitatea ezinbestekoa egiten du. Hauen bortxaezintasunik gabe ezin da Legebiltzarraren erabateko babesik izan. Legebiltzar askerik gabe, ez dago herri askerik.

- **AGINTE BETEARAZLEA.** Gaur egun, EAEn dagoen Aginte Betearazleak edozein estatukorekin antzekotasun formal asko ditu. Aurrerantzean, baina, menpekotasun harremanik onartuko ez duen gobernu izango da. Horretarako aginte betearazleari ahalduntzea emateaz gain, aginte legegiletik ibilbide orri bat eta babes eman behar zaio, sor daitezkeen eszenatoki desberdinak aurreikusiaz.

Beste aldetik, gaur egun EAEko aginte betearazleak ez dituen eskumenak praktikan bereganatu beharko lituzke, esate baterako, kanpo harremanak, seguritate soziala, diaspora eta abar. Era berean, Aginte Betearazlearen esku egongo dira finantza, ekonomia eta moneta politika finkatzea eta nazioarteko harremanak bultzatzea. Aginte Betearazlearen Lehendakaria zeregin hauetarako ezin da mugatu. Lehendakariak bere funtzioen jardunean bere herria ordezkatzeko du.

- **AGINTE JUDIZIALA. EAEko Justiziaren administrazioa.** Justiziaren EAEko administrazioa sortuko da, non EAEko Auzitegi Gorenak azken organoaren funtzioa beteko duen. Aginte Legegile eta Betearazlearekin batera, judizialak osatuko du EAEko aginte banaketaren hirugarren zutabea. Aginte judizialaren antolaketa organikoa eta jarduera oinarriak herritarren borondatearen gune nagusia den Legebiltzarretik arautuko dira. Gaur eguneko abiapuntutzat hartuta, gure legedia propioaren aplikazioan sakonduko duen Sistema Judiziala eratzea ezinbestekoa da.

- **GAINONTZEKO EUSKAL LURRALDEEKIN HARREMANAK SAKONDU.** Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa (Beherea eta Garaia), Lapurdi eta Zuberoa lurraldeek osatzen dute Euskal Herria. Baina Euskal Herria hiru eremu administratibotan banatuta dago, haietatik bi Estatu Espainiarraren menpe eta Ipar Euskal Herria –Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa lurraldeez osatuta– Frantziako Estatuaren menpe. Estatu Espainolaren menpe dauden bi eremu administratiboak honakoak dira: Nafarroako Foru Komunitatea (Nafarroa Garaiaz osatuta) eta Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeez osatuta). Ahaztu gabe, noski, Trebiñuko barrutia osatzen duten udalerrriak, hala nola Turtziozko barrutikoak, bertako herritarren borondatearen errespetuaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzeko aukera defendatuz.

Zazpi lurraldeotako herritarren arteko harremanak historikoki naturalak izan dira –batez ere hizkuntza eta kultura bera partekatzeagatik– eta, Estatuak eta administrazio desberdinek ezarritako traba eta oztopo guztien gainetik, gaur egun oraindik badira. Hiru eremu administratibo hauetatik bakoitza, maiz, gainerako bi euskal eremu administratiboekin bizkar emanez aritu baita. Gauzak horrela, eremu batzuetan, garai bateko harreman naturalak denbora pasa ahala ahuldu egin dira.

Arabarrek, bizkaitarrek, gipuzkoarrek, lapurtarrek, nafarrek eta zuberotarrek askotan adierazitako borondateari bidea emanez, bada garaia elkarri bizkar emateari uzteko eta Euskal Herria osatzen duten hiru eremu administratibo –Ipar Euskal Herria, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi– elkarri begira jartzeko, historikoki bereziak izan diren harremanak berriro berreskuratuz.

Euskal eremu administratibo bakoitzeko herritarrek, libre eta demokratikoki erabaki beharko dute zein harreman, elkarlan edo bateratze instituzional eta politiko molde nahi duten gainontzeko euskal eremu administratiboekin.

Guk, hiru eremu instituzionaletan kokatuta dauden Euskal Herritarren arteko harreman, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak sendotu eta sakontzeko haututa egiten dugu. Hori garatzeko beharrezkoak diren instituzioen eta gainerako antolakundeen arteko elkarlana eta harremana indartuz. Era berean, Euskal Herri osoa bere baitan hartzen duten instituzio eta eragileak sendotu eta berriak sortzeko lan egitea ezinbestekoa ikusten dugu.

- **EAE ETA ESTATU ESPAINOLAREN ARTEKO HARREMANAK.** Estatu espainiarrak ez du konpondu edo konpondu nahi izan, estaturik gabeko nazioen auzia. Gaur egun oraindik ez du ukazioan jarraitzea beste inolako borondatearik. Hainbat aldiz, Euskal Herriaren gaiari demokratikoki intzenbidea emateko eskatu arren, Estatuaren aldetik entzungor egin da. Bide horretan Legebiltzarra zein Euskal Herriko beste instituzioetatik egin diren eskaera eta bide guztiei atak itxi zaizkie.

Egoera honen aurrean, eta desiragarria litzatekeen arren, ez dugu Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatu Espainiarraren arteko adostasunerako aukerarik ikusten, azken honen gailentasuna onartuz ez bada. Eta hau guk ez dugu onartuko. Guk maila bereko harremanak izan nahi ditugu Espainiar Estatuarekin. Gure erabakien burujabe eta gure etorkizuna, herritarren borondateaz eraikiz; ez dugu Espainiako legediak jarritako mugetan itozteko asmorik. Herri borondatearekin bat egiten duen legedian bakarrik sinesten dugu eta herri borondatearekin bat egiten duen legedia bakarrik onartuko dugu.

Gure eskua zabalik izango dugu auziari irtenbide adostua emateko, baina horretarako aukerarik izan ezean, gure bide demokratikoa garatuko dugu. Eta Espainiar Estatuari, gure bidearekiko errespetua exijitzen diogu. Ez gehiago eta ez gutxiago ere. Ez dugu Madrilen inolako interbentzio politiko, administratibo eta judizialik onartuko. Herritarrek erabakiko duten marko berri honetatik eratorritako gaien eta eskumenen kudeaketa eta botereen transferentzia modu ordenatuan egiteko bitariko kudeaketa guneak sortzea beharrezkoa ikusten dugu.

- **EUROPA ETA NAZIOARTEAREKIN HARREMANAK.** Gaur egungo Europako herri zaharrenetakoa izanik, euskal herritarrak Europako historiaren protagonista nagusi izan dira une askotan. Gaur egun, Euskal Herriko Hegoaldeko zein Iparraldeko herritarrak Europar Batasuneko herritarrak ere badira, eta beraz, hainbat eskubide politiko eta ekonomikoren jabe neurri horretan. Europako Kontseiluaren kide ere bai, eta hortik datozkien eskubideen jabe ere bai, besteak beste, Europako Giza Eskubideen Auzitegira jotzeko aukera datorkie.

EH Bilduk bultzatuko duen EAEko Euskal Estatuan, herritarren eskubide zibil eta politikoen bermeak erabatekoa izan behar du, eta zentzu horretan, orain arteko eskubideak ahal den neurrian zabaltzea izango da ardura nagusia. Europar Batasuneko edo Europako Kontseiluko kide izan ala ez euskal herritarrek libreki etorkizunean hartu beharko duten erabakia izanik ere, une honetan dagokigun lana Europaren gaur egungo konfigurazioa aldatu eta benetan herritarren interesera jartzea da, horretarako kontinente osoan lanean ari diren indar politiko eta mugimendu sozialekin elkarlana sustatuz.

Edozein kasutan, ezinbestekoa iruditzen zaigu Europaren konfigurazio, funtzionamendu eta parte hartzeari buruzko eztabaida sozial sakona egitea eta, horren buruan herritarrek erabakitzea zer nolako harremana nahi duten marko horrekiko.

Era berean, EAEk Estatu espainiarraren bitartekaritza eta filtrorik gabe, nazioarteko gainerako Estatu, Herri eta Entitateekin harreman zuzena izan eta bertan parte hartzeko eskubidea izan behar du.

3.- ESTATUS BERRIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK: SUBJEKTU POLITIKO BURUJABEA

Eskubide politiko, zibil, linguistiko, sozial eta ekonomiko guztien jabe izango diren gizon eta emakume askeen herri askea eraiki eta bermatzeko zutabeak izango ditu estatus politiko berriak. Ez Espainiako Estatuak ez eta beste inoren muga eta oztoporik izango ez duen marko berria. Libreki erabakitzeko aukera, errealia izango dena.

Burujabetza osoa aldarrikatzen dugu, gure etorkizunaren jabe bakarrak izan nahi dugulako. Jakina, gure komunitate politikoaren baitan EAE eta Euskal Herria bera sentitzeko eta pentsatzeko elkarbizitzen diren era guztiei errespetatuak izan daitezen bidea ematea bilatzen dugu. Elkarbizitza demokratikoaren oinarria egitasmo politiko guztiak baldintza berdinetan babesteko eta gauzatzeko bideak bermatzea baita.

EAEko proposatuko dugu Estatus politiko berriaren edukiak eskubide guzti horiek bermatuko ditu, EAEko gizarteak ongizate mailarik gorena eskuratzea ahalbidetuz. Norabide horretan jarraian aipatzen diren elementuak azpimarratu nahi genituzke:

- **Giza Eskubideen Errespetua.** Jarduera eta politika publiko guztiek, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala izango dute abiapuntu. Askatasun politiko eta eskubide Zibil guztien errespetua eta bermea izango da ardatza, berauen gauzatze praktikorako baliabideak jarriaz. Pertsona guztien duintasuna, askatasuna, berdintasun eta justiziarako eskubidea bermatzea ezinbestekoa da. Bereziki azpimarratu behar da, emakumeen eskubide guztien errespetuan burutu beharreko lana.
- **Herritarren eskubide sozialen bermea.** Estatus berriaren baitan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren zein kanpotik datozenen eskubide sozialak bermatzeko baliabideak jarriko dira. Horrek, Gizarte Zerbitzuen sistema egokia, Oinarrizko diru sarrerak bermatzeko Sistema, Gizarte Segurantzaren Sistema eta Osasun Zerbitzu propioa eta kalitatezkoa izatera behartzen gaitu. Sistema horiek denak gure beharren arabera antolatu eta garatu ahal izateko ezinbestekoa da eskumen eta baliabide denak izatea.
- **Ekonomia.** Politika ekonomiko zein fiskalak burutu ahal izateko eskumen zabalak behar ditugu. Gero eta globalizatuagoa den eremu honetan, bere bide propioa garatzeko ahalmena dutenek dute soilik etorkizuna bermatuta. Parez pare, berdintasunean Ekonomia itunak egiteko ahalmena behar dugu, bai Estatu espainiarrarekin eta baitan gainerako orotariko entitateekin ere. Horri, ogasun politika birbanatzaileak gauzatzeko ahalmena gehitu behar zaio. Estatus berriak ezinbestean urrats handi bat eman behar du norabide horretan.
- **Lan harremanen marko propioa.** Lan munduaren baitan eraginkorrak eta funtsezkoak diren politikak garatu ahal izateko, estatus berriak, Euskal Lan Eremua arautu, antolatu eta dinamizatu ahal izateko baliabide guztiak izan beharko ditu, lan esparruko eragile guztientzat espazio eta aukerak sortuz.
- **Euskara eta herritar guztien hizkuntza eskubideak.** Euskararen egoera larria kontuan izanik, estatus berriaren euskara, ofizial izateaz gain, lehentasuneko hizkuntza gisa aitortu eta garatuko da. Gaztelera ere hizkuntza koofiziala izango da eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
- **Hezkuntza Sistema.** Ezinbestean, edozein Estaturentzat funtsezkoa da Hezkuntza sistema sendoa izatea. Izan ere, hezkuntza jendarte aurreratu eta kohesionatuen zutabe nagusia baita. Gure Hezkuntza Sistema Propioa eraiki behar dugu. Sistema propioa, publiko eta herritarra, euskalduntze osoa bermatuz, eleaniztasuna bermatuko duen murgiltze eredua. Pertsona ardatz izanda, hezkuntza eskolatik haratago doan prozesu gisa ulertuta, une eta espazio desberdinetan herritar orori heziketa bermatzeko, hezkuntza formala eta ez formala barne biltzen dituen hezkuntza sistema eta komunitatea eraikitzea funtsezkoa da.
- **Erreferendumak eta Herri Kontsultak.** Herri parte-hartzaile eta dinamiko bat nahi baldin badugu, gai nagusi eta txikiagoen inguruan ere iritzia eman eta erabakitze aukera bideratzea funtsezkoa da. Erabakitze eskubidea estatus berriaren oinarri nagusietako bat den heinean, eta herritarren bo-

rondateari bide emateko expresio eta modurik zabalena, Erreferendum eta Herri Kontsultak izanik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak osatutako Estatuak, erreferendumak eta herri kontsultak egiteko esku-
men eta gaitasuna izango du. Bai bere estatus politikoari buruz erabakitzeko, bai gainerako Euskal lurraldeekin izan beharreko harremanari buruz erabakitzeko baita Espainiar Estatuarekin izan nahi duen harremanari buruz erabaki ahal izateko ere. Era berean, herritarren interesekoak diren gai edo proiektuen inguruan erabakitzeko aukera ere bideratuko da erreferendum eta herri kontsulten bidez. Erreferendum eta herri kontsultak egiteko prozedura, baliabide eta gainerako elementu guztiak, Legebiltzarrak onartutako Lege baten bidez arautuko dira.

4.- ESTATUS BERRIRAKO PROZEDURA DEMOKRATIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoa –Euskal Herriaren zatia izanda– bere buruari emandako ahalmenean oinarrituta, komunitate politiko gisa eratu zen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek beraien buruari komunitate politiko gisa eratzeko ahalmena eman zioten. Orain, mundu garaikideak ezarritako erronka berriei –justizia sozialean oinarrituta gizarte gisa hazteko egitasmoari– aurre egiteko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek berriro gure buruari eratzeko ahalmena emanez, gaur egun dauzkagun erakundeak eskumenez bete behar ditugu, harik eta burujabetza-egitura instituzional bilakatu arte.

Norabide horretan, arestian esandakoa berretsi nahi dugu: ibilbide hau guztia egiteko modu bakarra da herritar gehiengo zabal batekin batera eta herritarren esku uzten erabaki politiko nagusiak hartzeko ahalmena. Beraz, ariketa demokratikoari iruzurrik ez egiteko, metodologia zehaztea eta zaintzea ezinbestekoa da.

Estatu bilakatzeko ibilbidean, 2017-2019 epealdian egitekoa, halako urratsak aurreikusten dira:

Lehen fasea

1. EAEko autogobernu ponentziaren eztabaida. Estatus berri baterako oinarriak adostu. Oinarri hauek Gernikako Estatutuaren agorpen eta mugak gainditzeko irizpide orokorrak zehaztea izango dute helburu nagusia.
2. Oinarri horien zirriborroaren gaineko kontraste dinamika sektore ezberdinekin: unibertsitatea, sindikatuak, enpresariak...
3. Adostutako oinarriak Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onartuko du.
4. Oinarri horietatik abiatuz Estatus berrirako testu artikulatu proposamena idazteko prozesu eratzaillea, helburua EAE subjektu politiko burujabe eratzea denez gero. Prozesu eratzaille horrek sektore ezberdinek eta, oro har, herritarrek parte hartzea ahalbideratuko du.

5. Testu hori Legebiltzarrean onartuko da. Era berean, Batzar Nagusiek eta Udalek ere, testuari babesa eskaintzeko aukera izango dute.
6. Legebiltzarrean onartutako testua herritarren esku jarriko da, "Kontsulta habilitante" baten bidez. Herritarrek oniritzia emanaz gero, bigarren faseari ekingo litzaioke.

Bigarren fasea

1. Kontsultaren ondoren Madrileko Gobernuarekin negoziaketa prozesu bat irekiko da. Bertara, herritarrek onetsitako proposamena eramango da.
2. Negoziaketa honen bidez, herritarrek onartutakoaren garapenerako bidea, tresnak eta epeak zehaztuko dira.

Ibilbide honen ezaugarrietako bat Legalitate Printzipioa izango da. Hala ere, arestian esan bezala, Euskal instituzioetatik eratorritako legalitatea, herritarren borondatean oinarrituko da. Maiz gertatu da legalitatea zerbait aldaezin gisa hartzea, gizartean gertatzen ari diren aldaketen aurrean, edota legalitatea erabiltzea oztopo eta baliabide gisa posizio edo status politiko zehatz bat inposatzeko. Espainiar legalitatea ez inoiz ere oztopo izango ibilbide horretan. Legalitatea, herritarren eta herrien borondateari bide emateko tresna izango da eta ez, berau oztopatzeko. Zentzu honetan, Espainiar Estatuaren legalitatea aldatu beharko litzateke EAEko gizarteak adierazitakoa jasotzeko.

Hurrengo urratsak

Bigarren fasearen garapenean, Madrilgo Gobernuaren jarrera herritarrek erabaki eta Euskal Instituzioek bideratutakoari ukazioarekin erantzutea baldin bada, burujabetza eskuratzeko ibilbide propioa zehaztu eta adostuko genuke, EAEko alderdi, sindikatu eta eragile sozialen artean.



ehbildu

